

“Umorea jarrera bat dunk”

Zakilixut I Tumatxa!

Elkarrizketa bukatu eta “ez haiz adarretatik ibiltzen, Sustrai” bota dit irribarretsu. Planoan bizitzeak ez baitauka entzefalograma planoak ukatearekin zerikusirik...

SUSTRAI COLINA

Marrakia: Antton Olariaga

Ba omen duk Olariaga delako bat...

Hasieratik izan dudana lagunik handienetakoa. Bere hatz markak zeintzuk diren oso ongi zekiat. Kaleidoskopio bat bezala agertzen zaidak, bi zentzuetan makilatzen naiz, obsesiboki begiratzen zidak, baina ondo pasatzen duen susmoa zeukaat.

Hire famaz baliatzen duk-eta!

Gehiena lortu dudana esaldi famatua duk: “Aizak, erdi-bana”. Gauzak erdibana egiteak gozamina zekarrek. Beste kontu bat duk zein gainean eta zein azpian, baina erdibana.

Ez gainean, ez azpian, hi beti azken orrian.

Eskelen artean jarriz gero aurrera egingo nikek baina... Irakurlearen problema izango lukek.

Irakurlearen problema?!

Bai. Bakarrak bagina eta bakarrik biziko bagina bezala sortu behar diagu. Gerokoa ez duk gure erantzukizuna. Ez diagu guk agintzen, eta nik gutxiago...

Ez zaihalako piperrik ulertzen izango duk.

Niretzako hori desafio bat duk, ez duk etsigarria.

Etsigarria, hire gaurkotasun ateporala!

Gustatzen zaidak kontrapuntuan egotea. Umorea kontua ere baduk. Pentsa, hitzaldietan, mezetan... burua nora joaten zaigun.

Niri hire hitz arraro horietara joan izan zaidak.

Hitz polisemiko bati intentzio osoz esanahi berria eranstea gustatzen zaidak, ez hitzak edozein zentzutan ematea. Tristeia iruditzen zaidak hitzen balio oinarritzakoa galtzea.

Egunkaria bai ari dela bere oinarritzako balioa galtzen!

Lehenago jendea fresko heltzen zuan egunkariara, gaur leher eginda. Notario lana egiten dikan egunkariak, bezperan entzundakoa egiaztatu.

Horregatik irakurri behar duk atzekoz aurrera?

Hori psikomotrizitate kontua duk. Kioskoetan beti lehen orrialdea jartzen ditek aurpegiz, alderantziz jarrita, hamar minututan dena aldatuko bailukek!

Albisteak ez lituzkek albiste izango gertatu aurretik?

Kazetaritza txarraren sintoma terriblea duk hori. Baina sexuan ere ez al duk hala? Bezperak ez al dituk biharamonak baino hobekak? Tontoak gu, inportanteena eguna bera baituk!

Eta barre egitea!

Niretzat irribarrea izan duk. Barre algaraz ezin dituk hogeita lau ordu pasa. Irribarrez ordu gehiago eman ditzakek, baina hogeita lau ere ez, azkenean muskuluak atrofiatu egiten dituk-eta.

Muskuluak ez, umorea atrofiatuko zaiguk guri!

Umorea jarrera bat duk. Ideologiak badik eragina umorean. Denak ez dituk modu berean eta gauza berataz katxondeatzen. Sinesten diat tokian tokiko klabeak badaudela, umorea kulturala dela.

Politikari baten diskurtsoa duk hori. Zakilixut lehendakari?

Hitz-jokoa izango lukek, baina alde aurretik galdutako jokoa. ■